

Multa

Aaron, Iker eta Adei dira talde honen sortzaileak.

Hirurak 1990. urtean jaiotakoak. Orain dela 2 hilabete kiderik gazteena (Bikendi, 17 urte) eta nagusiena (Eneko, 22 urte) gehitu zitzaizkien.



1 **Sorrera.** Ideia orain dela urte asko otu zitzaigun baina 'sortu sortu' duela urtebete izan zen, ostiraletako poteo batean. Eta zergatik sortu genuen? Musika gustuko dugulako.

2 **Izena.** Taldekide bati trafikoko isuna jarri zioten eta horregatik jarri genion 'Multa' izena. Beste izen batzuk ere bagenituen, hala nola: 'Jeringilla en la rodilla', 'Algo en contra'...

3 **Kideak.** Gaur egun bost kide gara: Eneko (ahotsa), Bikendi (gitarra), Aaron (gitarra), Adei (bateria) eta Iker (baxua eta ahotsa). Hasieran hiru ginen, Aaron, Adei eta Iker, baina duela bi hilabete beste biak hasi ziren gurekin jotzen eta abesten, Bikendi eta Eneko.

4 **Estiloa.** Hardcore-punk estiloa jorratzen dugu batik bat.

5 **Abestiak.** Bederatzi abesti sortu ditugu dagoeneko, baina gure kontzertuetan bertsio batzuk ere jotzen ditugu. Gertatzen diren eta gure inguruan ikusten ditugun gauzei buruz hitz egiten dugu gure abestietan.

6 **Entseguak.** Astean bizpahiru aldiz entseatzen dugu, Ermuko 'Beti-Txarto' eraikineko 2. lokalean. Ateak zabalik daude eta nahi duenak gure entsegua ikus dezake.

7 **Azken kontzertua? Udal Liburutegiaren atzean dagoen lokalean eman genuen kontzertu bat, 'ArazoFest' jaialdian, Arazo larriak koadrilak antolatuta. Aupa Arazo Larriak! Azkena, Mallabiko Herriko Tabernan eman dugu, Urriko jaiak baino lehen.**

8 **Diskorik, maketarik...** Bi hilabete barru maketa grabatzea espero dugu.

9 **Kontaktua.** Iker (660 78 79 35 telefono zenbakia) eta Adei (671 65 09 26 telefonoa). Gure helbide elektronikoa multahc@gmail.com da.

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

san antonio

Izelaiaeta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOTEGIA

CERVECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta
INPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
bereizitasuna

943 17 39 78